



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Erregea, kolpez kolpe

Hogei urte pasa dira *Un rey golpe a golpe* (Erregea, kolpez kolpe) liburua argitaratu zenetik Arakatzeko SLren eskutik, *Ardi Beltza* aldizkariaren argitaletxea zena. Servimedia agentziak eta *El Mundo* egunkariak liburuaren berri eman zuten titular honekin: “Pepe Rei edita un libro que ataca al Rey Juan Carlos” (Pepe Reik Juan Carlos erregeari eraso egiten dion liburu bat argitaratu du). Aldizkariaren langilea eta argitaletxearen administratzailea izan nintzen, gogora ekarriko ditut anekdota batzuk.

Aldizkariako lankide batek kotxe istripu larria izan zuen liburua inprimategira eramaten, beste auto bat atzetik jarrika zuela. Istripuaren ardura zuen gidariak ihesari eman zion baina bere matrikula Espainiako armadari lotua zegoela baieztatu genuen Trafiko Zuzendaritzan. Kontuan hartzekoa da, Amadeo Martínez militar ohiak, Estatu Nagusiko Koronel izandakoa eta erregeari buruzko informazio sentsiblea maneiatzen zuenak, *Ardi Beltza*-n iritzi artikuluak idazten zituela.

Hainbat kazetari, politiko eta epailek erosi zuten liburua, batzuk aldizkariaren harpidedunak ziren. Euskadiko liburutegi publikoak liburua eskuratzean, *ABC* egunkariak eta hainbat agentziak horren berri eman zuten polemika sortu nahian eta horrela gertatu zen ere liburua Estatu espainoleko hainbat tokitan aurkeztu genuenean.

Liburua argitaratu baino hilabete batzuk lehenago, Tele 5 telebista eta *El País* egunkaria, Pepe Rei (gure aldizkariaren zuzendaria) kazetariaren inguruan aritu ziren. Hedabide hauen arabera, gure zuzendariak Joaquín Navarro epailearekin (*Ardi Beltza* aldizkariaren kolaboratzailea) eta Mario Conderen abokatuarekin bilera bat burutu zuen erregeari buruz hitz egiteko.

Hamalau urte pasa behar izan ziren *Un rey golpe a golpe* lanaren egilearen berri eman ahal izateko. Rebeca Quintans da Patricia Sverlo ezizenarekin mozturorotatu zen idazlea. Urte guzti hauetan EITBk zentsuratua izan du liburua, baita Espainiako medio publiko eta pribatuak ere. Are gehiago, TV3 telebista katalan publikoak ere *Monarquía o República* dokumentalean *Un rey golpe a golpe* liburuari egindako aipamenak azken orduan zentsuratzea erabaki zuen 2012 urtean.

Pepe Reiren azkeneko proiektuetariko bat erregeari buruzko dokumentala burutzea zen, baina dokumentala antolatzen ari ginela gure Madrilgo lankideak CESIDen (gaur CNI) bisita jaso zuen eta egitasmoa atzeratzea erabaki genuen.

Paradoxa da erregearen ustelkeria azaleratzeko leihoa Euskal Herriko aldizkari batek ireki nahi izatea eta Zumarragan jaiotako Iñaki Urdangarinen aferak zabal-zabal ikertzeko atea irekitzea. ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Existitzeaz

Balorazio baikorra egin dute Durangoko Azokako zein Euskaraldiko arduradunek. Ez dut nik zalantzan jarriko baikortasuna, ez dut ukatuko egin ahal izatea bera dela poztasunerako arrazoi bat, baina nago exigentzia-maila oso behean genuela jarrita. Eta bada gauza (on) bat pandemiak ekarri duena, alegia lorpenei, txikiak izanagatik, begi zoliagoez begiratzen diegula. Ez naiz ni ezereen adibiderik egokiena. Etxea liburu beteta izanagatik, ez dut liburu bakar bat ere erosi Durangon. Lehen ere, liburu gutxi erosten nituen han, nahiz eta ia egunero joan, lagun eta ezagunekin elkartzera. Betiko moduan erosi ditut

liburuak, herrian, hiriburuan eta argitaletxean zuzenean. Ez naiz *streaming* bidezko jardueretara konektatu. *Restop* batean geratu naiz Miren Agur Meabe-ekin bere liburua oparitu nahi didalako. Bilera batera ekarri didate Mikel Sotorena. Liburuzalea naiz objektuzalea naizen aldetik. Baina non eta norekin eskuratu nituen ez zait erraz ahazten. Aitzakia bat dira, maiz, besteekin elkartzeko. Seguruena horregatik ez dut DAn aurten ezer erosi. Eta arranguraz diot, Harkaitz Canok esaten duen bezala, badelako jendea Durangoko Azokan besterik existitzen ez dena. Eta horiek gabe ni ere ez naiz existitzen, hein batean. ●